

LEGEDIA

SARRERA

ZUZENBIDEA: Testuinguru bakoitzean pertsonen arteko elkarbizitza erregulatzea helburu duen arau juridiko moten multzoa. Testuingurua bat izan arren, zuzenbide mota ezberdinek eragin dezakete. Gurea kirol zuzenbidea da.

Zuzenbidea erregulatzen duten erakundeak: arau juridikoak sortu eta hauek betearazi. Zuzenbide kasu bakoitzean epaitegi batek konpontzen du arazoa, arau haustea. Adibidez, kirol zuzenbidean kirol batzordeak.

3 ezaugarri ARAU JURIDIKOA izateko: Agintzailea (Imperatividad), Behartzailea (Coercibilidad) eta Orokortzailea (Generabilidad).

- Agintzailea: Agindu eta debekatu, zer egin eta zer ez, mugi gaitzkeen mugak (ekintza mugak) jarri edo markatu.
- Behartzailea: Agintzaileak esandakoa ez betetzean, koaktiboki edo indarrean derrigorrez betearaziko du. Ondorioak jarri eta betearazi. Erakundeak (polizia, epaitegiak, etab.)
- Orokortzailea: “Guztientzako” aplikagarria da. Testuingurua begiratu zuzenbidea aukeratuz, testuinguru horretako pertsonendako, ez beste inorendako.

Derrigortuak gaude arau juridiko guztiak ezagutzera, bestela ez dakigu betetzen ditugun edo ez. Arau juridiko guztiak BOE-n argitaratuak daude, gure kasuan autonomikoak BOPV-en. Bertan agertzean izango da aplikagarria eta behartzailea. Legeak esango du buletinean noiz jartzen den indarrean.

IZAERA ATZERAGARRIA (caracter retroactivo): Normalean onerako izaten da, kalterako izan beharrean. Araua argitaratu den egunetik atzera ere aplikagarria da, arauak esaten duen denboran. Arau haustea duela bi hilabete egin bada eta arau berriak izaera atzeragarria badu 6 hilabeterako, arau berriko zigorra beteko da, aurrekoa baino onuragarriagoa bada arau haustea egin duenarentzat.

ZUZENBIDE POSITIBOA: Begiratzen dugun momentuan eta lekuan aplikagarria den arau juridiko multzoa.

BOE-n lege berri bat argitaratzean, aurrekoa deuseztatzen da. Batzuetan, ez du aurreko legea osorik deuseztatzen, bere zati batzuk aplikagarri utziz. Hau aurreko lege bat baino gehiagorekin gerta daiteke.

REFUNDIZIOA: Testu bat refunditzean aurrez zeuden lege guztiak deuseztatzen dira, hauen zati aplikagarri guztiak lege berri batean elkartuz.

Noiz sortzen da arau juridiko berri bat? Hutsune legal bat dagoenean edota gatazka juridikoak (ñabardurak) sortzen direnean, azken finean beharren arabera.

Lege berriak normalean, aurrez zeudenen maila berdinean egon behar dute, eta bat besteen gaineratik izatekotan, berriak egon behar du. Hau ez gertatzean, arautegiko mailaketaren bortxaketa ematen da.

PERTSONA FISIKOA: Pertsona fisikoa kontsideratu dezakegu pertsona bat amaren sabeletik irten (jaiotza biologikotik) eta 24 ordura. Pertsona fisikoaren bukaera, honen heriotzarekin lotzen da. Bai jaiotza eta heriotza erregistro zibilean ageri behar dira.

PERTSONA JURIDIKOA: Pertsonaz edota ondasunez osatutako kolektibo batetik eratorritako unitate didaktikoa, zeini estatuak gaitasun patrimonialak onartzen dizkion helburu sozial iraunkorra eskuratzeko. Argi esanda edozein enpresa. Hau sortzeko hasieran sozio batzuk egon beharko dira eta kapital bat jarri beharko dute denen artean. Kapitalaren arabera eskubide eta betebeharrak ezberdinak izango dituztelarik.

Pertsona juridikoa "hiltzeko", taldea disolbatu egin behar da, eta sozietatea guztiz likidatu, ez da nahikoa taldea desegitea, erlazio juridiko guztiak likidatu beharra dago.

Pertsona fisiko bat hiltzen denean, bere gaitasun juridikoa ere hil egiten da, baina pertsona juridikoa hiltzean bere gaitasun juridikoak ez dira berehala hiltzen.

Arau juridikoek jaio aurretik ere eragin dezakete, hau da, haur bat jaio aurretik (fetuan) bere aita hiltzen bada, haur horrek aitaren herentzia jaso dezake, horretarako eskubidea du. Hau gaitasun juridikoaren adibide bat da. Pertsona orok eskubideak eta betebeharrak baititu.

EKINTZARAKO GAITASUNA: Gaitasun juridikoaren eskubide eta betebeharrak pertsonak berak bakarrik praktikara eramateko ahalmena. 18 urtetik aurrera ematen da, adin nagusia zarenean. Aurrez, gurasoen tutoretzan egonik, pertsona fisiko honek ez du ekintzarako gaitasunik izango.

Jaio berri bat ez badago erregistratua, haur horrek ez du eskubiderik izango, baina betebeharrak ere ez. Arau hauste bat egitekotan, bere tutorea izango da erantzule.

Arau hauste bat ematean, epaiketa bat egongo da, eta epaileak beti eman behar du epaia. Hala ere, badira epaile batek kasu konkretu batzuk ez epaitzeko baldintzak, zein kasu horietan beste epaile bat izendatzen den: Kasu politiko batean epailea partidu politiko horretako afiliatua bada, epailearen jurisdikzioa ez bada edota garrantzitsuena, epaituaren eta epailearen artean nolabaiteko harremana badago (familiarra zein adiskidantza).

JURISDIKZIOA: Zuzenbide motaren arabera, jurisdikzio bat edo beste izango du. Zuzenbide bakoitzak epaitegi espezifikoak dauka. Egoera edo gatazkak markatuko du jurisdikzioa, eta honen barruan jarraitu beharreko bideak (errekurtsoak, etab.).

Abokatu bat kontratatzean bi pertsonen lana ordaintzen dugu:

- Abokatu: Edukia lantzen duena, arau haustea.
- Prokuradorea: Prozedura kontrolatzen duena, papeleoa, datak, etab.

TURNOKO EPAILEA: Arau haustea egitean dagokizun zuzenbide eta jurisdikzioan, epaitegi horretan tokatzen zaizun epailea. Epaitegi bakoitzean epaile bat baino gehiago daude, epaile ordena bat mantenduz. Epaitegira iristen den lehen kasua lehen epaileari tokatuko zaio, bigarrena bigarrenari eta horrela ordena jarraituz. Lehen kasua izateak ez du esan nahi bigarren baino azkarrago epaituko denik.

JURISPRUDENTZIA: Arau haustea dagoenean, epaileak honen eta arau juridikoen epaia ematen du. Hauek segun nolakoak diren (goi mailako epaitegia), jurisprudentziaren parte

bihurtu daitezke. Epaileak honetaz baliatu daitezke, ondorengo antzerako kasuetan epaiak ebazteko, aurreko kasuetako epaia baliatuz.

ZEHARKAKO BOTEREA:

		B. LEGEGILEA	B. BETEARAZLEA	B. JUDIZIALA
E S T A T U A	NORK	Gorte orokorrak. Beheko ganbara kongresua eta goikoa ganbara aldiz, senatua.	Ministro Kontseilua (gubernua).	Botere judizialeko kontseilu Nagusia, bere eginkizuna modu egokian egiten dela bermatzea du funtzio. Auzitegi gorena eta audientzia nazionala.
	NOLA	Estatuko hauteskundeak. 300-400 diputatu (probintzia bakoitzetik 2 + populazioaren arabera).	Estatuko hauteskundeak.	5 urterik behin partaideak erregeak izendatu, haugariko 12 (mugiezinak) epaileak eta magistratuak izango direlarik. Beste 8ak abokatuak.
	FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzio legegilea. • Finantza funtzioa. • Kontrol funtzioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzio administratiboa. • Funtzio politikoa • Funtzio reglamentarista edo araugilea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jurisdikzio zibila, penala, administratiokoa, lan arlokoa eta militarra. • Arau juridiko apurketa oro epaitzea.
	ARAU JURIDIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lege arrunta. • Lege proposamena sortu eta onartu (Kongresuan zein senatuan). • Lege organikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Legegintzako Errege Dekretua (legegileak egindako delegaziotik). • Ministro Agindua. • Errege Dekretua onartu. • Errege Dekretu Legea (Gero Legegileak onartu, baina kaduzidadea du). Kongresuak baieztatu behar du 30 egun baino lehen bizirauteko. • Lege proiektua sortu (Legegileak onartu) • Legeak ez dire beste arau juridikoak. 	
E A E	NORK	Eusko legebiltzarrak.	Eusko jaurlaritza eta Lehendakaria.	Justizia auzitegi nagusia edo gorena.
	NOLA	Hauteskunde autonomikoak.	Hauteskunde autonomikoak.	
	FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleen betebeharrak eta eskubideak erregulatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko funtzionamenduaren kudeaketa. • Dekretuak sortu ditzake, EAEko dekretuak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jurisdikzio zibila, penala, administratiokoa eta soziala.
	ARAU JURIDIKOAK			

P R O B I N T Z I J U R I D I K O A	NORK	Batzar nagusiak	Ahaldun nagusia (foru aldundia)	Audientzi Probintziala, Barruti Judiziala eta Bake Epaitegia.
	NOLA	Udal hauteskundeak	Udal hauteskundeak	
	FUNTZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa. • Politikoak. • Foru aldundien jardura kontrolatzen dute (Araudia). • Reglamentarista. 	<ul style="list-style-type: none"> • Arautegiak eta foru dekretuak sortzea eta arau juridikoak sinatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jurisdikzio zibila, penala eta administratiokoa.
	ARAU JURIDIKOAK			

- **Botere legegilea (poder legislativo):** legeak proposatzea, onartzea, ezeztatzea eta aldatzea du funtzio. Gorte orokorren eskumena da eta hauek bitan banatzen dira:
 - **Behe ganbara edo parlamentua:** Bertan proposatzen dira legeak.
 - **Goi ganbara edo senatua:** aurrez proposaturiko legeak onartu, ezeztatu edo aldatzen dira hemen. Senatua lurraldearen ordezkarien ganbara da.

Parlamentua autonomia mailakoa da eta kongresua estatu mailakoa. Botere legegileak beste botereekiko duen harremana: botere legegileak botere betearazlea ikuskatzen, zaintzen du, eta baita bertako langileen portaera aztertu.

- **Botere betearazlea (poder ejecutivo):** Gobernuari dagokion boterea da (gubernuburu eta ministroak). Estatuko barne eta kanpo politika zuzentzea eta legeak betetzen direla bermatzea du funtzio.
Harremana: Botere legegileak onartutako legeak betearaztea.
- **Botere judiziala (poder judicial):** Arau juridikoak aplikaraziz, gizartean justizia administratzeaz arduratzen den estatuko boterea da. Beste bi botereetatik bereizita dago, erabateko askatasuna bermatzeko, legeak ondo betetzen diren ala ez epaitzeko, lege haustek epaitzeko, etab.

ARAU JURIDIKOAK

- **Lege Arrunta:** Hierarkia juridikoaren mailaketan bigarren postuan kokatzen da, konstituzioaren atzetik, lege organikoaren maila berdinean eta lege dekretuaren aurretik. Bere aprobazioa botere legegileari dagokio.
Herritar batek ere sortu dezake lege arrunt bat, 500,000 firma jasoz.
Lege arruntek bizitzako aspektu sozialak erregulatzen dituzte, hau da, lege organikoek jorratzen ez dituztenak.
- **Lege Organikoa:** Aurrekoa bezala hau ere bigarren postuan kokatzen da. Lege hau onartzeko parlamentuko 2 ganbaren baieztapena behar da. Hemen garatuko diren gaiak aurrekoak baino garrantzitsuagoak izango dira, hala nola oinarrizko eskubideen legeak, askatasun publikoa, autonomia estatutuak, etab.

- Errege Dekretua (E.D.): Monarkia parlamentarioa duten Estatuetan ohikoa da. Kasu konkretu edo urgentzietarako soilik egiten direnez, 30 egunetan indargabetzen dira Diputatuen Kongresuan bitartean onartzen ez bada.
- Ministro Agindua: Gobernuko ministro guztiei eragiten dien arau juridikoa da. Gobernuko Presidentearen Dekretua eta Ministro Kontseiluaren Dekretuaren azpitik kokatzen da, eta noski, Legeen azpitik. Ministro bakoitzak sail bat kudeatzen duenez, ministro aginduak sailari dagokio.
- Legegintzako E.D.: Lege mailan arau juridiko bat da. Gorteen onarpena behar du eta gobernuak eramaten du. Izen hau, erregeak argitaratzen duelako jasotzen du. Legegintzako E.D.-a lege mailakoa da, beraz, hau E.D.-aren gainetik egongo da.
- Lege Proiektua: Organo legegilearen aurrean aurkeztu beharreko proiektua da, honen onarpenaren bidez lege bihurtzeko. Lege proiektu bat Gobernuak soilik aurkeztu dezake. Oraindik onartu gabeko legea denez, ezin da arau juridikotzat hartu.
- Lege Proposamena: Lege baten proposamen bat da eta orden legislatibo batean aurkeztu behar da. Ez da arau juridikoa, proposamena delako. Botere legegileak, betearazleak edota herritar xumeak (500,000 firma eskuratuz) proposatu dezake. Lege proiektuak Lege proposamenarekiko lehentasuna du, indar gehiago baitaude, Gobernuak proposatuak direlako.
- Autonomia Estatutua: Konstituzioaren ondorengoa da, autonomia mailan. Euskal Herriko Autonomia Estatutua 1979koa da.

KIROL ZUZENBIDEA

1790 hamarkadan “Jovellanos”-ek orduko gizarteko egoera aztertu zuen, jarduera fisiko eta kirolaren ikuspuntutik, bi lan atereaz:

- 1- **1796an:** Dikotomia (banaketa) argi bat ematen zela ikusi zuen jarduera fisikoko jarduleen eta ikusleen artean. Hau, gizarte mailarekin estuki lotuta zegoen, jarduleak maila sozial baxukoak izanik eta ikusleak burgesak. Honen aurrean, lan honetan proposamen bat egiten zuen: Industriaren garrantzia kontuan izanda garai honetan, burgeseria jarduera fisikoak egitera bultzatzen zuen, langileak jarduleak izanik nekatu egiten zirelako eta horrela produkzioa jaisten zelako. Honela, langileek atsedena izango zuten, eta burgeseriak jarduera fisikoa eginez beraien sedentarismotik eta jan-edanetik aterako ziren, onura osasungarriak izanik.
- 2- **1809an:** Hezkuntza aztertu zuen espezifikoki, garai honetan heziketa fisikoak hezkuntzan tokirik ez zuela ikusiz. Heziketa fisikoa onuragarria zela eta, heziketa sisteman egon beharko zukeela proposatu zuen. Ez zioten kasurik egin.

1883an, heziketa fisikoko lehen legea onartu zen, irakasle eskolan eta bigarren hezkuntzan heziketa fisikoa sartuz. Honen ondorioz, JJFF-en praktika asko igo zen, lehen kirol

elkarteak edo erakundeak sortuz. Elkarre haultzakos noski garai honetan ez zegoen arautegirik. Beraz, bi aukera zeuden elkarre hauen arautegi gisa hartzeko: **Kode zibileko 1800. artikulua** edota **1887ko elkarreen legea** (JJFF-entzako ez espezifikoa).


Estatuari elkarreak juridikoki legalak izatea axola zitzaion soilik, ez zion hauen helburuak (lehiaketa, aisialdia, heziketa, etab.) zeintzuk ziren inporta.

Honela, Kirol elkarre ezberdinak sortuko dira, helburuen arabera (kirol klubak eta federazioak adibidez). Honez gain, sortze prozesu (baldintza) ezberdina izango dutenez, pertsona juridiko ezberdinak izango dira. Baina honek garai honetan ez du garrantzirik estatuarentzat, elkarre legala izateak asetzen baitu.

1941-ean, errege dekretu (E.D.) baten bidez, kirol erakundeei zuzendutako lehen erregulazioa publikatu zen, aurreko biak deuseztatuz (soilik kirol erakundeentzat, beste erakundeentzat indarrean jarraitu zuten), estatuak kirol erakundeekiko eskuduntza hartuz, hauek hartzen ari ziren garrantziagatik.

E.D. honek arautegiko mailaketa bortxaketa suposatu zuen. 1942an aurrez aipatutako 3 arau juridikoak daude indarrean (zuzenbide positiboa dira), baina kirol elkarreei dagokien E.D. bakarrik da zuzenbide positibo. Mailaketaren bortxaketa kirol erakundeei dagokien arau juridikoetan topa genezakeen, kasu honetan bakarrik E.D. baitzen zuzenbide positibo, aurrez zeuden estatuak jarritako elkarreen arau juridikoak kirol arloan deuseztatuz.


1941-ean E.D.-arekiko paralelo, DND (Delegacion Nacional de Deportes) kirolaren kudeaketaz eta antolaketaz arduratuko den elkarrea sortu zuen Estatuak (Falangistek).



GAUR EGUN (2014)

Falangeak sortu. Beste biekiko erabateko kontrola izateko, nahiz egitura piramidala izan. Beheko biek ez dute autonomiarik, DND-ak esan nola funtzionatu.

Liskar bat egotean (Klubak federazioekin), futboleko txartel gorri bat adibidez, hau da helegiteen (errekurtsoen) prozedura: **BIDE ADMINISTRATIBOA**



Kirol lehiaketa horren antolaketa autonomikoa bada, ezin da helegitea Espainiako kirol administrazioko epaitegian jarri. Apelazio Batzordea eta gero, bide bat aukeratu behar da, batera jo ezker, ezin da bestera jo. Espainiak nahiz eta eskumena izan, Euskadikoak autonomia du bere lurraldean ekiteko.

Federazio guztiek ez dituzte bi instantziak (lehiaketa batzordea eta apelazio batzordea). Batzuk bat edo bestea, beste batzuk biak.

1941ean DND-ak ez zieten Federazio eta Klubei beraiek nahi bezala ekiten uzten. DND-aren erakunde bakar eta autoritarioa, honek esaten zuena atzeraezina zen!

DND-ak ez du inolako helegite administratiborik onartuko, ezta administratiboa ez dena. Gaur egun kirol arlotik epaitegi arruntera (bide judizialera) pasa daiteke, errekurtsua egitera, DND garaian ez.

- Epaitegiak → epaia eman
- Administrazio epaitegiek → “Administrazio” ebazpena.
- Aqotar la vía administrativa (Bide administratiboa agortzea/bukatzea) → ezin izango da errekurtsu gehiago egin. Gaur egun, hau Kirol Administrazio epaitegiek (estatu mailan) eta Euskadiko Kirol Justizia Batzordeak (EAE) eman.

1941ean DND-ak ematen zion hasiera eta amaiera bide administratiboari, bera baitzen zegoen entitate bakar eta autoritarioa.

DND-aren estatutuak 1945ean onartzen dira, ministro agindu bidez. Beraz, bitartean nahi zutena egiten zuten, legala ez izan arren (estatuturik ez izatean ez zirelako pertsona juridikoak), ez zeuden erregistratuak. Baina Estatuak sortua izatean DND-a, hau posible zen, estatuaren nahia (interesa) betetzen/defendatzen zuelako.

Egoera autoritario honek 1961era arte iraun zuen, noiz **ELOLA EASO** edo **Hezkuntza Fisikoaren Legea** sortu zen. Honek kirola Hezkuntza Fisikoaren parte bihurtu zuen.

Hala ere, lege berri honek ez zituen gauzak asko aldatu, DND-ak indarrean jarraitzen baitzuen egituraketa piramidala mantenduz, beraz, egoera berdinean mantendu zen kirol ordenamendua, ordenamendu orokorretik kanpo mantenduz, errekurtsorako gaitasunik gabe jarraituz. Hau dela eta lege berri hau kritikatu izan zen.

Hala ere, bazituen alde positiboak ere lege berriak. Alde batetik, kirola Hezkuntza Fisikoan sartzeak INEF ezberdinen sorrera ekarri zuen, eta bestaldetik, COE (Comite Olimpico Español, 1937an sortua zena) independizatu egin zen. Bi gertakari hauei esker, kirol afizionatuari bultzada garrantzitsua ematea lortu zen.

Urte batzuk geroago, 1975ean Franco diktadorea hil zen, eta honek aldaketa nabarmenak suposatu zituen. Francoren heriotzak, Falangearen eta DND-aren deuseztapena ekarri baitzituen, trantsizio garaian sartuz.



Honela, 1977an, trantsizio garaian CSD (Consejo Superior de Deportes) sortu zen, gaur egun kirol arloko Batzorde Nagusia dena (Ordura arte DND-a zen).

CSD-aren sorrerarekin, honek aurrez DND-ak zuen tokia hartu zuen, egitura piramidalarik eutsiz. Hala ere,

egitura berdina mantendu arren, egoera ezberdina zen antolaketa mailan, liskarrei irtenbidea eman ahal zitzaielako errekurtsio bidez, CSD-a ez baitzen autoritate goren eta bakarra aurrez DND-a bezala.

Honen ostean, hurrengo mugimendua 1980an eman zen, **Kultura fisiko eta Kirolaren legea** sortuz, orduko Estatuko Kirol Legea. Gaur egun indarrean dagoen kirol legea estatu mailan **10/1990 legea** da, Estatuko Botere Legegileak egina. EAE-n aldiz, indarrean dagoena **14/1998koa** da.

Aurretik, **1978an Espainiako (Cadizko) Konstituzioa** onartu zen, indarrean dagoen Arau Juridiko Nagusia edo Orokorra, gainontzekoentzat markoa dena. Bi multzo bereiztuko ditugu:

- *Oinarrizko Eskubideak (Derechos fundamentales)*: 14tik 29. artikulura doazenak. Estatuko pertsona (fisiko/juridiko) zein biztanle ororentzat aplikagarriak, nahitaezkoak eta bortxaezinak diren eskubideak azaltzen dira, derrigorrezkoak.
- *Oin-gidariak (Principios rectores)*: 39tik 52. artikulura doazen gida lerroak, bizi kalitate minimo baterako oinarriak finkatzen dituztenak. Oinarrizko eskubideekin alderatuz, hauek ez dira derrigorrezkoa, hautazkoak baizik.

Oin-gidari bat ezin da salatu, aukerazkoa baita, aldiz oinarrizko eskubide bat bortxatzea salatu daiteke, derrigorrezkoak baitira.


Jarduera Fisikoa eta Kirola oin-gidari bat da, eskaintza bat baita, inolaz ere ez da derrigorrezkoa. Honen harira, **27. artikulua** dio Heziketa oinarrizko eskubidea dela, eta **27.2 artikulua** heziketak pertsonaren pertsonalitatean eragina duela, honen garapenean eragin zuzena izanik. Hau gure interesetarako honela interpreta dezakegu: heziketa fisikoa ere heziketa dela, beraz heziketa fisikoa oinarrizko eskubidea dela.

Baina, interpretazio hau deuseztatzeko, **43.3 artikuluan**, zein oin-gidaria den eta ez oinarrizko eskubidea, “Botere publikoek heziketan heziketa fisikoa eta kirola sustatuko dutela” dio.

- *Erakundetze eskubidea (Derecho de asociacion)*: **Espainiako Konstituzioko 22. artikulua** da, zeinek dioen estatuko biztanle orok eskubidea dugula edozein motatako erakunde bat sortzeko (politika arloan ñabardurak), kirol erakundeak barne. Gainera, ondorengo hau ere esaten du: “Erakundeek erregistroa soilik publizitaterako emango dute”.

Hau benetan ez da horretarako. Pertsona juridikoak erregistratu egin behar dira ezagutzera emateko, baina benetan pertsona juridiko horiek ez dira pertsona juridiko bezala onartuak izango erregistratu gabe, beraz erregistroak gehiago balio du pertsona juridiko bakoitzak bere gaitasun juridikoa eta ekintzarako gaitasuna (eskubideak eta betebeharrak) eskuratzeko publizitaterako baino, nahiz eta publizitatea (ezagutzera ematea) bigarren mailako ondorio bat izan, erregistratzean ezagutzera emango baita pertsona juridiko hori.

Espainiako konstituzioko 148. artikulua dio Autonomiek gai batzuekiko eskumenak dituztela, hau da, arautegi propioak sortzeko eta antolaketa administratiborako eskumena dutela. Hala ere, autonomia izateak ez du esan nahi independentea denik, hau da, autonomiak sortutako arautegia ezingo da estatuko konstituzioari edota autonomiako estatutuari kontrajarri, baina bere garapen propioa egiteko eskumena izango du. Hau, Espainiako konstituzioaren eta autonomia estatutuaren azpitik egongo da beraz. Kirola beraz, artikulua honen arabera autonomiaren eskumena da.



Beraz, Autonomia Estatutua Espainiako Konstituzioaren markoan kokatuko da, zeinek aldi berean, Espainiako Kirol Legearekin batera EAE-ko Kirol Legearen markoa finkatzen duten.

Konstituzioko 148. artikuluan dioen bezala, autonomiek arautegi propioa izateko eskumena dute, beti ere konstituzioan dagoena kontrajarri gabe. Hau honela, Euskal Autonomi Erkidegoko “arautegi nagusia” Gernikako Autonomi Estatutua da, 1979koa. Hau, Lege Organiko bat da, zeinek gai konkretu batzuk jorratzen dituen, eta EAE-ko markoa edo oinarria markatzen du.

Artikulu honek autonomiei eskumen eta betebeharrak batzuen bidez autonomia ematen die agintzeko. Hala ere, autonomia batzuk beste batzuk baino autonomoagoak dira, Foru edo Lurralde Historikoei esker. Hala ere, beste autonomi guztiak hasiera batean berdinak dira, konstituzioak eskumen berdinak ematen dizkielako autonomia guztiei.

Guzti honen ostean, esan beharra dago, kirola kontrolatzen duten erakundeek eta entitateek DND-aren garaira itzuli nahi dutela, Kirolaren Bide Administratiboa Bide Judizialek bereziki, hau beraien interesentzako kaltegarria dela uste dutelako.

Arau juridikoetara itzuliz, Errege Dekretu, Ministro Agindu... ez dute arau juridikoa osatzen. Hauek, arau juridikotik at egongo dira, baina erreferentzia bidez, arau juridiko baten artikulua jakinak zehaztu, moldatu edota garatu ditzakete.

Adibidez, Errege Dekretu batek arau juridiko jakin bateko artikulua bati edo artikulua multzo bati egin diezaike erreferentzia, baina arau juridikoak Errege Dekretuari ez.

Artikulu singular batek ez du arau juridikoa osatzen, ez baitu arautzeko izaerarik, baina artikulua ezberdinak elkartuz bai, arau juridikoak artikulua multzoz (Dopina, Kirol Diziplina, Kirol elkarteak ...) osatuta baitaude.

1591/1992ko Estatuko Kirolaren inguruko E.D., 10/1990eko arau juridikotik eratorriko da, eta bertako artikulua bati edo artikulua multzo bati egingo dio erreferentzia, hau garatuz. Errege Dekretu hau arau juridiko (Legedia = Zuzenbide Positibo) izango da eta bere artikulua bakoitza indarrean dagoen (10/1990) arau juridikoaren parte izango dira.

KIROL ELKARTEGINTZA 10/1990 Legearen arabera

Kirol elkartegintza **10/1990ko arau juridikoaren** alderdi edo arau multzo bat da. Orain **10/1990ko Estatuko Kirol Legearen** arabera kirol elkartegintza landuko dugu, zeinek EAeko kirol elkartegintza markoa erregulatuko duen.

Espainiako konstituzioko 22. artikuluan elkartegintza oinarrizko eskubide gisa agertzen da, beraz derrigorrezkoa da.

Aurrez esan bezala, kirol elkarte edo pertsona juridiko mota ezberdinak sortu daitezke, helburuen arabera eskubide eta betebeharrak ezberdinekin.

Hasi aurretik, arau juridikoak osatzen dituzten atalen eskematxo bat:

TITULUA → KAPITULUA → ARTIKULUA

Titulu bat hainbat kapituluk osatzen dute, eta aldi berean kapitulu bat hainbat artikuluk.

Orduan, **10/1990eko Estatuko Kirol Legeko III. Titulua** aztertuko dugu, zeinek kirol elkartegintzari buruz hitz egiten duen, honako sailkapen hau jarraituz:

- ☛ II. Kapituluak: Kirol Klubak
- ☛ III. Kapituluak: Espainiar Kirol Federazioak
- ☛ IV. Kapituluak: Liga Profesionalak
- ☛ V. Kapituluak: Kirol Sustapenerako Erakundeak

Hau honela, kirol elkartegintzaren antolaketa ondorengoa da:

- ☛ 1. Mailako kirol elkartegintza: Kirol Klubak
- ☛ 2. Mailako kirol elkartegintza: Alde batetik kirol federazioak eta bestetik liga profesionalak.
- ☛ Estatu mailako aplikazio eremuko elkarteak: Estatu mailako klubak elkarteak eta sustapenerako erakundeak.

Kirol elkarteez hitz egitean, hauen izaera publikoa (Eskaintza administratiboa) zein pribatua (Sustapen ekonomikoa) izan daiteke, elkarte misto baten adibide garbia polikiroldegia izanik. Baina ez du zertan elkarteak mistoa izan behar, izan daiteke guztiz publikoa zein guztiz pribatua.

Orokorrean, jarduera fisikoaren eskaintzaz arduratzen diren elkarteak publikoak edota mistoak izaten dira, hauen helburuak aisialdiarekin baitaude lotuta, adibidez Udal Polikiroldegia sortze prozesu administratibo batekin eta ondorengo kudeaketa eta sustapena publikoa zein pribatua izanik edota erakunde pribatuak, adibidez gimnasio pribatuak, hauen kasuan guztiz pribatuak izanik.

Baina kirolaz hitz egitean, bertako ia elkarte guztiak pribatuak dira, hauen helburua lehiaketa izanik, maila federatua. Honen adibide kirol klubak.

Hau ikusita, argi geratzen da 3 kudeaketa era ezberdin daudela: kudeaketa zuzena edo publikoa, kudeaketa ez zuzena edo pribatua eta kudeaketa mistoa.

Beraz, esan dezakegu jarduera fisikoa gehienetan mistoa dela, bere arloko pertsona juridiko gehienak pribatuak direlako, hein handi batean izaera publikoarekin (Eskaintza eta sortze prozesua medio).

Pertsona juridiko publikoa izango da elkartearen sorrera eta kudeaketa administrazioaren esku dagoenean.

Pertsona juridiko pribatua sorreran administrazioak parte hartzen ez duenean eta bere ondasun eta baliabideak pribatuak direnean, hau da, materiala, espazio, sustapena, etab. pribatuak direnean.

Eta mistoa izango da sorrera administrazioaren kargu denean, baina elkartearen kudeaketa enpresa pribatu bati dagokionean, adibidez udal polikiroldegi asko.

➤ 1. Mailako kirol elkartegintza: Kirol Klubak

Pertsona fisiko edo juridikoz sortutiko erakunde pribatuez osatuak eta kirol modalitate bat edo gehiago zabaltzeko helburua dute. Bere bazkideek kirol modalitate hori/horiek praktikatuko dituzte eta kirol lehiaketa zein kirol jardueretan parte hartuko dute.

IZENA	DEFINIZIOA	HELBURUA	SORTZE BETEKIZUNAK	ERREGISTROA
Kirol Klub Elemental	Kirol elkartegintza erraztea helburu duen kirol klub oinarrizkoena	Kirolaren praktika, irakaskuntza, promozioa, hastapena. Lehiaketa ez da helburu. Ezin estatuko lehiaketa ofizialetan parte hartu.	Dokumentu pribatua: -Sortzaileak izena (pax fisikoak) -Sorrera nahia, helburua eta izena. -Elkarte helbidea. -Arauen onarpena.	Erakunde eta kirol erakundeen erregistroan (CSD)
Oinarrizko Kirol Kluba	“Klub tipoa”	Kirol Kluben ohiko jarduera: Elemental + lehiaketa	Eskritura publikoa: -Sorrera nahia. -Estatutua. -5 bazkide sortzaile gutxienez (pax fisiko edo juridikoak)	Erakunde eta kirol erakundeen erregistroan (CSD)

Kirol klub elementalaren eta Oinarrizko kirol klubaren arteko ezberdintasun nagusia lehiaketa da. Badago beste bat ere, elementalaren sortze prozesua errazagoa da.

IZENA	DEFINIZIOA	HELBURUA	SORTZE BETEKIZUNAK	ERREGISTROA
18. artikuluko kirol klubak	Erakunde publiko ala pribatu barneko kirol izaerako talde/arloa	Oinarrizko kirol klubaren pareko	Eskritura publikoa: -Oinarr. kirol kluba +: -Taldea moduan sortzeko estatutua edo izaera juridikoa ematen diona. -Klub arduraduna. -Aurrekontu ezberdindua.	Erakunde eta kirol erakundeen erregistroan (CSD)
Kirol Baltzu Anonimoa (SAD)	Estatu mailako lehiaketa profesionaletan parte hartzeko hartu beharreko derrigorrezko forma. Merkatal izaera, gizarteko diruarekin sortua (akzioak) eta finantzaketa bide beretik.	-Izaera profesionaleko kirol lehiaketan parte hartu. -Kirol jardueren garapena eta sustapena	Eskritura publikoa. Sortzeko 2 modu: -Erabateko eraldaketa edo zati batena.	.Erakunde eta kirol erakundeen erregistroan (CSD). -Merkatal erregistroan.

Taulan jartzen duen bezala, kirol profesionalean parte hartu ahal izateko Kirol Baltzu Anonimoa izan behar da. Honek baditu hainbat “tranpa”.

Lehenbizi, **10/1990-eko Estatuko Kirol Legeak** kirol profesionalaz dioena argitu behar da, honek kirol profesionaltzat Saskibaloiko ACB Liga eta Futboleko 1º eta 2º Mailak bakarrik hartzen baititu. Beraz, Kirol Baltzu Anonimoa izatearen beharra murriztu egiten da, batez ere beste kirol guztietan.

Baina, norbaitek esan dezake Athletic Club Oinarrizko Kirol Kluba dela eta ez Kirol Baltzu Anonimoa. Bai, egia da hori, baina honek azalpen bat du. 90eko Estatuko kirol legea onartzean, aurrez bazegoen beste araudi bat, beraz moldaketa bat egin behar izan zuten. Honela, aurrez zeuden kirol klubei 85-86 urteetan eginiko auditoriak (ondarezko saldo positiboa) begiratu zitzairen, eta hau positiboa bazen, Oinarrizko Kirol Klub bezala jarraitzeko eskubidea izango zuten, lehiaketa profesionalean parte hartzeko eskubidearekin. Auditoria hau gainditu ezean, Kirol Baltzu Anonimo bilakatu beharko ziren lehiaketa profesionalean parte hartzea nahi izan ezker. Hori bai, 90etik aurrera sortzen den talde orok lehiaketa profesionalean parte hartzekotan, Kirol Baltzu Anonimo bezala sortu beharko da.

Kirol Baltzu Anonimoa izateak baditu bere abantaila eta desabantailak. Hasteko, ez du bakarrik kirol klubaren arautegiak erregulatzen, baizik Baltzu Anonimoenak ere bai, beraz bi arautegia errespetatu behar ditu, honek dituen abantaila eta desabantailekin. Honez gain, merkatal Baltzu moduan funtzionatzeak ere bere abantaila eta desabantailak ditu. Klub bakoitzak bere interesak izan beharko ditu kontuan zein izaera hartu jakiteko.

Gaur egun, talde batek 2.B mailatik kirol profesionalera salto egitea lortzen badu, eta ez bada Kirol Baltzu Anonimoa, honetan bilakatu beharko da, horretarako bi aukera dituelarik: Gehiengoak erabiltzen duena, erabateko eraldaketa, zeinetan aurrez zegoen elkarteak desagertu egiten den eta Kirol Baltzu Anonimo berri bat sortzen den. Sortze prozesu honetarako CSD-ak jartzen ditu bai kapital bai denbora betebeharrak. Beste aukera, zati baten eraldaketa da, non aurrez zegoen elkarteak funtzionatzen jarraitzen duen eta gainera Kirol Baltzu Anonimo bat sortzen den, laburbilduz, elkarte bat zegoen lekutik orain bi ateratzen dira, honek suposatzen duen antolaketa arazoekin.

➤ 2. Mailako kirol elkartegintza: Klubaren elkartetarako

IZENA	DEFINIZIOA	SORTZE BETEKIZUNAK	ERREGISTROA
<i>Kirol Federazioa (Estatua)</i>	Pertsonalitate juridikoko erakunde pribatuak, bere ekintza eremua espainiar lurralde osora zabaltzen dutena, beti ere eskumena duten gaietan eta autonomia erkidegoko kirol federazioez, kirol klubez, kirolariez, teknikoez, epaile eta arbitroez, liga profesionalez (hau egotekotan) eta kirol sustatzen, praktikatzen eta garapenean laguntzen duten beste kolektibo batzuek osatuak.	Eskritura publikoa (Gutxienez): -54 klub (6 erkidegotan) edo 9 erkidego federazio) - Estatutuak. - Klubaren %50eko idatzia (pertenetzia)	Erakunde eta kirol erakundearen erregistroan (CSD) (2 urtez behin behinekoa)
<i>Liga Profesionala</i>	Estatu mailako eta izaera profesionaleko lehiaketa ofizialak sortutakoan soilik eta derrigorrez sorturiko klubaren elkartetarako.		.Erakunde eta kirol erakundearen erregistroan (CSD). (2 urtez behin behinekoa)

Liga profesionala soilik existituko da saskibaloia eta futboleko federazioetan, hauek baitira kirol profesionaltzat hartzen diren kirol profesional bakarrak. Beraz, beste federazioek ez dute printzipioz liga profesionala sortzeko eskumen zein betebeharririk.

Liga profesional bat zein kirol federazio bat sortzean, hau 2 urtez behin behinekora izango da, ea honek indarra hartzen duen egiaztatzeko. Izan ere, elkarte hauek diru laguntza handiak jasotzen dituzte, eta ez dadin gertatu federazio bat sortzea diru laguntza horiek jasotzeko, eta aldi berean ez egon ekintzak antolatzen, funtzionatzen azken finean.

Liga Profesional bat sortzeko, zein federazioko departamentu edo sekziotzat har genezaken (beraz federazio gabe ezin da liga profesionalik sortu, ezta autonomi edo probintzi federazioetan, hau estatu mailako eskumena delako), nahiko izango da bertako klub batek lehiaketa profesionalean parte hartzeko eskumena edo maila izatea, hau gertatzean, automatikoki eta derrigorrean sortuko da liga profesionala, honetarako nahikoa baita klub bakar batek maila hori eskuratzea.

Esan bezala, liga profesionala sortzeko beharrezkoa da federazioko gutxienez klub batek lehiaketa profesionalean aritzeko eskumena eskuratzea. Hau gertatzean, liga profesionala sortuko da, beste pertsona juridiko bat federazioaren barnean, zeinek lehiaketa profesionala antolatu eta kudeatuko duen.

➤ Estatu mailako aplikazio eremuko elkarteak

- **Estatu mailako klubak elkarteak:** Estatu mailako kirol federazioak kontuan izaten ez dituen modalitateak eta kirol jarduerak garatzen dituzten erakundeak. Hau da, kirol federaziorik ez duten klubek sortuko duten elkarteak. Izan ere, kirol modalitate hauek ez dituzte bete federazioa sortzeko betekizun minimoak (54 klub 6 erkidegotan).
- **Sustapenerako erakundeak:** Federazioa baduten kirol modalitateak baina estatu mailako txapelketetan parte hartu nahi ez duten elkarteak sorturikoak. Soilik kirol sustapena eta helburu ludikoa helburu.

KIROLARI PROFESIONALEN lan erlazio berezia

Aldez aurretik, langileen eskubideak defendatzen dituen Lege eta hitzarmenen ordena hierarkiakoa jakin behar da:

Langileen Estatutua → Sektore Hitzarmena (Modalitate hitzarmena) → Enpresa Hitzarmena → Lan kontratua.

Langileen Estatutua marko orokorra izango da, minimoak markatzen dituen, eta ondoren sortzen joan diren hitzarmenek, langileen baldintzak hobetzeko joera dute normalean, inoiz ez txarrera joatekoak. Hau da, langile baten kontratuko baldintza minimoak langileen estatutuak markatzen ditu, baina langile horren enpresako hitzarmena baldintza hobeak adosten baditu, langile horren lan kontratua bere enpresako hitzarmeneko minimoetan oinarrituko da.

➤ 1. Definizioa 10/1990ko Legearen arabera

Kirolari profesionaltzat lehiaketa profesionalean libreki eta bere borondatez parte hartzen duen kirolari oro hartuko dugu. Lehiaketa profesionala izatean, Liga Profesionaleko klubak barne dagoen kirolari oro izango da kirolari profesionala.

➤ 2. Definizioa

Jarduera nagusi eta ogibidetzat duen kirolari oro hartuko dugu kirolari profesionaltzat, gutxieneko (SMI) soldata jasotzen badu, 2013an egunekoa 21,51€ eta hilekoa 645,30€.

➤ 3. Definizioa 1/1995eko Langileen Estatutuaren arabera

Langileen estatutu honek izaera bereziko lan erlaziotzat hartzen ditu kirolari profesionalak. Honela, kirolari profesionalen lan erlazioa erregulatzen duen E.D. propioa dute, **1006/1985ekoa**.

Kirolari profesional baten lan erlazioa **1006/1985eko Errege Dekretuak** babesteko eta ondorioz Lan Zuzenbideak babestua egoteko, 3 derrigorrezko ezaugarri bete behar dira:

- **Menpekotasuna:** Enpresak noiz, non eta nola jardun esaten dio. Antolaketa eta kudeaketari egiten dio erreferentzia.
- **Bestearen kontura:** Kirolariak ez du arrisku enpresarialik jasaten. Kontratuan adostutako dirua ziurtatua du, nahiz kluba ekonomikoki gaizki egon. Klubaren ardura dira jokalaria guztien zergak ordaintzea (Autonomo kasuan berea da arriskua).
- **Ordainketa:** Ezberdindu egin behar dira soldata (jarraitua, kopuru errepikakorra eta lanarekin bat) eta konpentsazioa (aldiunekoa eta irregularra).

➤ Kirolari Profesionalen eta gainontzeko langileen arteko ezberdintasunak

• **LANERAKO FASEA**

A. LAN MERKATUEN BITARTEKOTZA

Langile orokorrak ETT edota INEM bidez, Kirolari Profesionalak aldiz klubaren arteko akordioaren bidez.

B. KONTRATUA

Ordainketa: Kirolari Profesionalak soldataz gain primak edo konpentsazioak dituzte, langile orokorrek ez, nahiz eta gaur egun gero eta gehiago ikusten den langile orokorretan konpentsazioak jartzea, honek motibazioa igotzen baitu. Kasu batzuetan "B"-en ere kobratzen da.

Iraupena: Kirolari profesionalen kasuan beti da kontratu mugatua. Langile orokorretan aldiz ez. Hauen kontratuak behin behinekoak eta mugagabeak izan ohi dira, edota zerbitzu baterako kontratuak (kasu honetan zerbitzuak mugatzen du iraupena). Gaur egun gero eta gehiago dira kontratu mugatuak.

Proba epea: Langile orokorretan bai (3 hilabete edo >), kirolari profesionalen oso gutxi, eta inoiz ez 3 hilabete baino gehiago.

• **LAN ERLAZIOAREN GARAPENA**

A. BETEBEHARRA

Lanpostuarekin loturik dago jarduna langile arruntetan. Hauen lana era kuantitatiboan neur daiteke, lana bete den edo ez jakiteko. Kirolari Profesionalen kasuan irizpidea kualitatiboa da, zuk ezin duzu esan jokalaria batek ez duela ahalegin guztia egin. Hemen zailtasuna kontratua ez betetzearen isuna jartzeko.

B. ESKUBIDEAK

Langile orokorrek ez du dute irudi eskubiderik ("derechos de imagen"), kirolari profesionalak aldiz bai. Hauek gainera, diru sarrera hau ez dute deklaritzen, beraz eragina du beraien langabezia, erretiro, etab.

Honez gain badira beste hainbat herritarren eskubide elkarrekin sarridan errespetatzen ez dituztenak, hala nola intimitatearen eskubidea (Illarramendiren kasua zezenetan), berdintasun eskubidea edota “ocupacion efectiva” delakoa, non zein lekutan jardungo duzun markatzen dizun kontratuan. Hau oso zaila da kontrolatzea kirolari baten kasuan, eta bere biziko garrantzia du gizarte segurantzian, kontratuan jarritako lekutzean soilik babestuko baitzaite.

C. JARDUNALDIA, ATSEDENA ETA OPORRALDIAK

Langileen kasuak Langileen Estatutuak arautu, edota enpresa bakoitzeko Hitzarmenak. Profesionalen kasuan E.D.-ak markatu, baina langileen estatutuaren antzekoak.

D. DENBORA BATERAKO LAGAPENA

Langile orokorretan 1994 arte debekatuta zegoen. Kirolari profesioaletan aspaldidanik erabilia, klubarentzat zein kirolariarentzat baita onuragarria. Kasu honetan badira lagapen baldintza batzuk, hala nola lagapena kontratuaren iraupen barruan burutu behar da, lagapenaren %15a kirolariaren esku da, etab.

• **LAN ERLAZIOAREN AZKENTZEA**

Langile arruntetan adosturiko epe mugan, eta hau bukatzean orokorrean beste bat egin. Langilearen borondatez lana utziko badu, 15 egun aurretik jakinera eman beharko du. Kirolari Profesionalen kasuan epe muga bukatzean.

KIROL DIZIPLINA SISTEMA

➤ Kirol Diziplina sistema (ez da pertsona juridikoa).

10/1990 Estatuko Kirol Legearen arabera.

- Kirol diziplina: **XI Titulua. 73-85 art.** (Nola antolatzen den eta prozedura eta liskarrei erantzuna ematean zeintzuk parte hartuko duten ezarri. Hau aldagarria izango da, liskar ezberdinak sortzen joango baitira, eta CSD-ak aldaketak bultzatuko, erregulatu eta gordeko dituelarik)
- **73.art.:** “Kirol diziplinaren arloa, lehiaketa zein berauetan parte hartzen duten pertsonen eragiten dieten kirol arau orokorren arau-hausteetara hedatzen da; berauek, lege honetan, kirol klub, liga profesional edo federazioetako estatutu edo arautegietan jasoko dira”.

➤ Federazioen barneko kirol diziplina .

☛ **Arautzea**

- **10/1990 estatuko kirol legea 74,2 c)**
- **1835/1991 ED kirol federazio eta kirol erakundearen erregistroa 3.1. f)** (Barne-araudia erregulatzeko, zer nolako pausuak jarraitu behar dituzten estatutuak sortzeko eta kirol diziplina ahalmena nola garatu dezaketen erregulatzeko.
- **1591/1992 ED kirol diziplina 6.2. c)**

Kirol diziplina ahalmena, Estatuko kirol federazioei dagokie. Federazioek Kirol Diziplina garatzeko **10/1990eko Kirol Legean** eta **1591/1992 E.D.-an** oinarritu behar dute. Gai batzuen inguruan, kirol arau-hausteen inguruan bere modalitateei dagokiena.

☛ **Diziplina organoak**

Diziplina organoak lehiaketa ofizialetan derrigorrezkoak dira, federazio barneko egituran diziplina ahalmena soilik dutelarik. Hau ez du **10/1990eko Kirol Legeak** jasotzen, baizik eta federazioetako estatutuetan garatu behar dela esaten du.

Diziplina Batzordeak kide anitzeko organoak izan daitezke, edo kide bakarrekoak. Hauen zeregina kirol diziplina da gehienbat, eta sarritan lehiaketa antolaketa ere bai, partiduen atzerapenak edota formakuntzaren eskubideak finkatzeko aukera izanik adibidez.

Federazioen arabera, 2 diziplina batzorde (futbol eta saskibaloia adibidez) edota batzorde bakarra (atletismoan) izango dira, beraz, auzialdi bakarra edo bi.

Maila profesionala Liga profesionalen bitartez garatuko dute federazioek. Federazioaren barnean afizionatuentzat eta profesionalentzat diziplina organo ezberdinak egongo dira. Honek haien arteko hitzarmenak izatea komenigarri egiten du, biek antzekoak izan daitezkeen modalitate berak jarraipen bat izan dezan (beheko mailatik gora pasatzen den jokalaria bat) eta elkarren artean antzekoak izan daitezten. Federazioek arautzen duten arauak erregulatuko dute kirol profesionala, bere barnean baitago. Liga profesionala ez baita federaziorik gabe existitzen. Zenbait artikulutan zehaztuko da.

Gainera, administratzaile eta zuzendariak zigor daitezke liga profesionalen, talde bakoitzak, Kirol Baltzu Anonimoetan adibidez, erabakiak hartzeko autonomia dutelako.

➤ Liga Profesional barneko kirol diziplina.

☛ **Arautzea**

- **10/1990 estatuko kirol legea 74.2. d)**
- **1835/1991 ED kirol federazio eta kirol erakundeen erregistroari buruzkoa 28 art**
- **1591/1992 ED kirol diziplinari buruzkoa 6 c)**

Liga Profesionalen eskumena izango da Kirol Diziplina, **41.4. artikuluan** jartzen duenaren arabera. Kirol diziplina ahalmena izaera profesionalerako lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten klubak eta beraien zuzendari edo administratzaileen gain hartuko da.

Federazio eta Liga Profesional bakoitzak bere organo diziplinarioak dituzte, hauek nola funtzionatu behar duten **1835/1991ko E.D.-ak** finkatzen duelarik. Bertan, ligen estatutuetan (federazioetan ez) bazkideentzako araubide diziplinario espezifikoak egon behar dela zehazten da. Izan ere, Liga Profesionala Kirol Baltzu Anonimoz dago osatuta, eta hauek aldi berean bazkidez, beraz, bazkideek ere badute kirol diziplinan zerikusirik (erabakien erantzukizuna kasu batzuetan). Hau honela, araubide bat izan behar dute. Bazkide batek, bere akzioen arabera, kargu handiak (presidentea kasu) bete ditzake. Ondorioz, Liga Profesionalak bazkideentzako eskubide eta betebeharrak finkatu beharko ditu, eta kirol diziplinak epaituko ditu.

☛ **Diziplina Organoak**

- LNFP estatutuetan: Diziplina araubidea (*Gizarte Diziplina Batzordea*) → Diziplina prozedura (*LNFP-ko Batzorde Betearazlea*) → Errekurtso sistema (*Kirol Diziplinako Batzordea*).
- ACB: Diziplina araubidea → Arau hauste eta isunak → Isunen prozedura → Diziplina prozedura → Errekurtso sistema.

➤ Diziplina prozedura

Lehiaketaren garapen egokia bermatu diziplina prozedurak iraun bitartean. Horretarako bi prozesura ezberdin daude:

☛ **OHIKO PROZEDURA:**

Joko edo lehiaketako arau-hausteei dagokien egoerak, lehiaketak iraun bitarteko egoerei erreferentzia. Denbora edo espazio irizpidea: ez bakarrik lehiaketan zehar, atsedendian ere bai adibidez, beti ere joko edo lehiaketa arau-haustek ematen badira. Adibidez aktan aldaketa akatsak, jokalarikopuru ezegokia, etab. (Alineacion indebida)

10/1990eko Kirol Legearen 82.1.b) artikulua arautzen du. Prozedura erabili da, oso laburra delako, lehiaketa konkretuen azken faseetarako pentsatua baitago, adibidez saskibaloiko Errege Kopako Fase Finalerako, non errekurtsio emateko denbora oso laburra den, partidua egun batetik bestera jokatzen baitira. Irizpide formala du.

Espedienteari hasiera arbitroak ematen dio akta bidez, interes taldeei honen kopia bat emanaz (Hau batzordeek ere egin dezakete, arbitroak ikusi ez duen arau-hauste baten kasuan). Ohiko prozedura izango da, aktak partiduari soilik egiten baitio erreferentzia. Honen ostean, alegazio eta proba fasea etorriko litzateke. Jarraian espedientearen ebazpena eta azkenik errekurtsio posiblea.

☛ **EZ-OHIKO PROZEDURA:**

Kirol arau orokorreko arau-haustek, lehiaketatik kanpoko egoerak, baina noski kirol alorrekoak. Adibidez lizentzia arazoak edota sarrera bortitz bateko intentzioa (lesionatzeko nahia, agresioa, etab.).

1591/1992ko E.D.-aren 37-46 artikuluek erregulatzen dute. Ohiko prozedurak baino berme gehiago izaten dute. Legeri orokorreko eta printzipioen arabera izan ohi dira, arlo administratibo zigortzailearen prozedura komunaren egitura antzerakoa izanik.

Ohikoari kontrajarriz, probaren denbora eta espazio eremutik kanpo emandako arau-hausteetarako prozedura da, proba edo lehiaketan modu ez zuzenean eragiten duten kasuetarako.

Ohiko modelo zigortzailei erantzuten die, hasiera, garapena, bukaera eta errekurtsio posiblea izanik bere faseak. Zuhurtasuneko zigorra (suspension cautelar) eskaera egin daiteke presa badago, prozedura honek ohikoak baino gehiago irauten baitu.

➤ Berdinkatzea eta arbitrajea kirolean

Azaroari irtenbide judizialekiko formula aldizkakoa da. **60/2003ko abenduaren 20ko arbitraiari buruzko Legeak** arautzen du.

☛ **Batzordeak**

- NAZIOARTEAN: TAS (Tribunal Arbitraje du Sport). 1984an COI-ren babesean sortua.
- ESTATUAN: Tribunal Español de Arbitraje Deportivo, COE-k sortua.
- EAEn: Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia, Euskal Kirol Federazioen Batasunak sortua. Arbitrajearen abantailak: Kostua, azkartasuna, espezializazioa, sinpletasuna eta malgutasuna eta segurtasun juridikoa.

Kirolariak aurrera eramandako edo onarturiko jarrera edo ekintza multzoa:

- Kirol Kontseilu Gorenak argitaraturiko zerrenda erreferentziazat hartuz, **debekaturiko substantzien erabilera**.
- Kirolariaren gaitasun fisikoak artifizialki handitzen edo emaitzen aldaketarengan eragiten duen **metodo ez onargarrien erabilera**.
- Aurreko ataletan markaturiko **substantzi edo metodoen erabileraren sustapena**.
- Lehiaketan zein bertatik kanpo, dopinaren aurkako **kontrolak egitera ukatzea**.
- Dopinaren zigortze **prozedurak ekiditu edo trabak jartzea**.

13/1980ko Kirol Legeak dopina arautzen ez zuenez, Kirol Zuzendaritza Orokorrek bere esku hartu zuen dopaje arloa. Hala ere, 1988ko Seul-eko JJOO-etan ikusi zen bezala, dopina arautzeko behar handia zegoen, eta ondorioz, **10/1990eko Kirol Legean** jaso zen.

Espainiako konstituzioko 1.1 artikulua honela dio: *“Espainia eskubidezko Estatu sozial eta demokratiko batean eraikitzen da, eta beraren balore nagusi bezala, lege araugintza, askatasuna, justizia, **berdintasuna** eta politika aniztasuna.”*

Artikulu honek esaten duena ez du betetzen dopajeak, honi esker berdintasuna apurtzen baita. Hau honela, aurrez esan bezala, **10/1990eko Kirol Legean** jasotzen da dopajea. **VIII tituluan**, Kirol praktikaren segurtasuna eta debekatutako kiroleko metodo eta substantzien kontrola jasotzen da **56-59 artikuluetan**. Bertan, dopajearen aurkako kirol agentzia sortzeko eskakizunak, lehiaketa ofizialetan derrigorrezko kontrolak eta homologatutako laborategiak jasotzen dira.

Baina, dopinaren arautzearen egituraketak arautegien erabateko aldaketa jasan du, **10/1990eko 56-59 artikuluetan** indargabetuta daudelarik. Gaur egun **3/2013ko Dopinaren aurkako Lege Organikoa** (Lege Organikoa da, aurrez ikusi bezala, hauek oinarritzko eskubideak arautzen dituztelako, eta osasuna oinarritzko eskubidea delako) da zuzenbide positibo, zeinek bere **II. kapituluan** osasuna eta dopinaren aurkako antolaketa administratiboa estatuko, autonomia erkidegoetako eta osasunaren babesean arituko diren beste erakundeen eskumena dela dio. Beraz, kirol alorreko dopin kasu guztiak pasatzen dira “Agencia Española de Protección de la Salud en el Deporte”-tik.

EAE-ren kasuan, indarrean dagoen dopinaren Legea **12/2012koa** da. Honek esan nahi du, hau aurrez Estatuan zegoen 2006ko dopajearen Legean dagoela oinarrituta, eta ez gaur egun zuzenbide positibo den **3/2013koan**, beraz, EAE-ko eta Estatuko dopajearen Legeen artean kontraesanak egon daitezke.

Hauetz gain, badira beste arau gehigarri batzuk, hala nola **63/2008ko urtarrilaren 25eko E.D.**, dopajearen arloko isun diziplinarioen prozedura jasotzen duena, **185/2008ko Otsailaren 8ko E.D.**, Estatuko kirol agentziaren estatutoena eta **641/2009ko apirilaren 17ko E.D.** eta **1744/2011ko azaroaren 25eko E.D.**, dopin kontroleko prozesuak eta baimendutako laborategiak zehazten dituena, beste askoren artean aipagarrienak.

3/2013ko Dopajearen aurkako L.O. kirolarien osasuna bermatzea du helburu, baina zein kirolarirena? Bertako **1. artikuluan** honelako dio: *“Kirola modu orokorrean praktikatzeko duten pertsona orori da aplikagarria, batik bat kirol antolatua”*. Baina Lege hau haratago doa, zeinek 3 titulu oso eskaintzen dizkion lizentziadun kirolariei. Beraz, esan dezakegu dopajearen L.O.

hau gehiago dagoela federatuak dauden kirolarien berdintasuna bermatzeko, kirola praktikatzen duen pertsona ororen osasunaren babesa sustatzea baizik.

Lege honek, sustantzien inguruko isunak/zigorak ezartzen ditu. Honela, debekaturiko substantzien inguruko bi sailkapen mota egin ditzakegu: hauek hartzeari loturikoak eta hauek trafikatzeari loturikoak.

	Isuna / Zigorra	
Arau hauste aldia	A estimulatzaileak	B estimulatzaileak
1	Lizentzia 3 hil-2 urte	Lizentzia 2 -4 urte
2	Egoerak eta federazioak baldintzatu zigorra	Egoerak eta federazioak baldintzatu zigorra
3	Lizentzia behin betiko kendu	Lizentzia behin betiko kendu

Jarduera Fisiko eta Kirolaren ikuspuntutik begiratuta, oso garrantzitsua da jakitea, **Lege Organikoaren 15. artikuluan** dioena, non esaten den kirolariak gain, medikuak, entrenatzailea, zuzendaritza, etab. ere zigortuak izan daitezkeela.

➤ BATZORDEAK

Dopinaren kontrako agentziaz hitz egiterakoan:

- **Nazioartean:** WADA/AMA. Osasunaren babesa eta dopinaren aurkako borroka, COI-k 1999an sorturiko fundazio independentea. Honen funtzioak dopajearen aurkako borroka sustatzea, koordinatzea eta gidatzea eta sustantzia debekatuen zerrenda egitea.
- **Estatuan:** Kirolaren osasunaren babeserako estatuko erakundea. Estatuko erakundea denez, **28/2006ko Estatuko erakundeen Legean** oinarritu estrukturaketa, antolaketa, estatutuak, etab. **84.4 artikuluan** esaten den bezala, erakunde honen ebazpenak bide administratiboa agortzen du. Baina nazioarteko kirolarien kasuan ez. **3/2013ko Dopajearen L.O.-aren 37. artikuluan** dioen bezala, nazioarteko kasuen eskumena federazioei dagokie, nazioarteko federazioak beraien eskuduntza delegaturik, beraz estatuko federazioaren erabakia nazioartean aplikagarria izango da. Federazioen erabaki hauek ebazpenak ez izatean, epaiak baizik (ebazpenak bide administratiboak ematen ditu), ezin da honen errekurtsorik egin bide judizialera irtenez, bidea bertan agortuz, honek DND garaiko agintearen antza duelarik. Azkenik, honen funtzioak kiroleko osasunaren babeserako estatuko gidalerroak finkatzea, kirolarien osasunaren babesa sustatzea eta kontrolerako plangintza finkatzea, kontrolak burutzea eta egotekotan, espedienteak ebaztea izango dira.
- **EAE:** Erakunderik egotekotan Kirolean osasunaren babeserako estatuko erakundearen barrenean sortuko da, honekiko menpekotasunean.

Azkenik, badaude erabilera terapeutikorako substantzien oniritzia ematen duten batzordeak ere. Estatu mailakoa CAUT (Comite de Autorizaciones Terapeuticas), zein **641/2009ko E.D.** erregulatzen duen eta honen funtzioa erabilera terapeutikoak baimentzea edo debekatzea den. EAE mailan berriz, COVAUT (Erabilera Terapeutikorako Baimenen Euskal Batzordea) dugu, zein **12/2012ko EAE-ko dopaje Legearen 11.2 artikulua** erregulatzen duen.